

BETI GAZTE

ALDIZKARIA



BAZKIDEEI ZUZENDUTAKO SEIHILEROKO ALDIZKARIA

Urtean bitan bidaliko den eta klubak egiten duenari buruzko informazioa zabaltzen duen aldizkaria duzue hau. WhatsApp bidez jasoko da, era digitalean. Herriko hainbat establezimendutan ere aurkitu ahal izanen duzue paperezko formatuan. Irakurri eta informatua egon zaitez, kontu interesgarriak agertuko dira eta!



BETI GAZTE ELKARTEAREN EGOITZA KOLOKAN

1991z geroztik Beti Gazteren egoitza izan da Eskriboneako (Alhondiga) lehendabiziko solairua, zenbait urtez auzolanean moldatu ondotik. Orain honen erabilera birplanteatzen ari da Lesakako Udala. Gaiaren inguruan bazkideek erakutsitako interesari erantzunez, hementxe aurkituko duzue elkartearen iduria.

**ELKARRIZKETATUA:
ANGEL CABALLERO,
MASTEGI FUTBOL
ZELAIAREN
MANTENIMENDU
ARDURADUNA**



**200.000€
-KO AURREKONTUA
2022RAKO**

Pasa den otsailaren 19an eginiko batzar nagusian 200.000€ko aurrekontua onartu zen bertaratutako bazkide guzien artean. Ekitaldi eta aukeraz beteriko urtea izanen dugu Lesakan horri esker.

**BETI GAZTE
TERUELEN**

la 40 pertsona elkartu ziren 3 eguneko irteera batean Terueleko hainbat herri ezagutzeko.



ZEIN DA GURE EGOITZAREN ETORKIZUNA?



URTE MORDOAZ ALHONDIGA GURE EGOITZA IZAN ONDOTIK, BEHAR BADA AGUR ERRATEKO ORDUA AILEGATU ZAIGU ORAIN

1991. urtean hasi zen Beti Gazte elkarteak alhondigako lehendabiziko solairua auzolanean moldatzen. Orduraz geroztik hori izan da gure egoitza, bazkideak biltzeko eta antolatzen diren ekitaldi gehienentzako elkargunea.



Orain, eraikinaren egoera kaxkarra ikusirik eta erdi hutsik dagoenari erabilerak emateko asmoz, alhondiga berrasmatzeko partaidetza-prozesua abian jarri du Lesakako Udalak. Nahiz eta ez dagoen gure egoitza bertan geldituko denaren ziurtasunik, oraindik ez da aukera hori baztertzen.

Apirilaren 2an partaidetza prozesuaren lehen lan-saio irekia izan zen herriko liburutegian. Bertan, alhondigaren lehendabiziko, bigarren eta hirugarren solairuak eraldatuko direla oroitarazi zuen Udalak. Beheko solairua ez da prozesuan sartuko, jubilatuen elkarteak egonkorturik baitago.



la 1.500 bazkidek osatzen dugu Beti Gazte, horietatik 1.200 inguru lesakarrak, eta hogeita hamar urtez egoitzari emandako erabilerak egonkor izaera eman ez badigu ere, lehentasun urri bat aitortzea ez legoke soberan. Dena den, aldaketarik egotekotan, Udalak gure beharretara egokitutako espazioa berrmatuko digula baietsi du. Kasu horretan, beharrak zer diren adostea izanen dugu afera...

Partaidetza prozesuarekin jarraituz, bilerara bertaratutako guzien artean eraikinaren erabilerarako ildoak markatu ziren. Bertzeak-bertze: **herrigintza** garatzeko espazioa, eragilearen arteko **elkarrekintza** falta ikusirik hauen kohesiorako elkargunea, **inklusioa** sustatzen duena, erabilerak **anitzekoa** izatea... Ildo horiek ikusirik, erraza egiten zaigu pentsatzea Beti Gazte etorkizuneko eraikin horretan lekua baduela.

Erabilerak **aunitz** eta **anitza** ematen dio Beti Gazte egoitzari, beti ekimen berriei ateak irekiz. Jende mordoak hurbiltzen da bertara. Bazkide direnak, zein ez direnak; gazteak batzuk eta helduak bertze batzuk. Emakume eta gizonak, hemengo eta hango. Eskaintako ekitaldiak doakoak edo kostu txikikoak izaten dira, **denentzat eskuragarriak** izan daitezten. Egoitzatik antolatzen dira ekitaldi guztiak, kirola zein kulturakoak, eta hainbertze arlo lantzen dituen elkarteak izanik, **interes ezberdineko talde eta jende mordoak** biltzen gara bertan.



Herrigintza da Beti Gazte elkartearen izaera nagusia: herria sortu eta herriaren alde lan egin. Dantzan dakienak dantzatzen irakasten du, lasterka ibiltzen denak horretarako interesa duenari elkarrekin aritzeko aukera zabaltzen dio, futboleak dakienak taldeak entrenatzen ditu, josten dakienak ezagutza elkarbanatzen du... Guzi hori boluntarioez osatutako sarearen bidez. Lesakarrak lesakarrentzako lanean, Lesaka sortuz, **herri mugimendua** sustatuz. Zuzendaritzaren lana espazio hauek zaindu eta txukun mantentzea da, behar duenak behar duenerako erabilgarri izan ditzan. Horrela, espazio hauei sekulako **izaera publikoa** ematen zaie, denentzat irekiak baitira.



Hori guziaz gain, Beti Gaztek herriko **bertze elkarteekin elkarrekintza** izan du betidanik. Hainbat ekitaldi dira urtean zehar elkarlanean antolatzen ditugunak. Bertzeak-bertze, hauekin egiten dugu lan: Lesakako Zerbitzuen Elkartea, Irain eskola publikoa, Tantirumairu ikastola, Basurde elkarte gastronomikoa, Erraldioen Konpartsa, herriko dantza taldeak, Gizarte Zerbitzuak, herriko musika taldeak, osasun zentroa... Beraz, herrian eragileen arteko elkarrekintza falta dagoela ez da guztiz ziurra.



Udalaren erabakia, edozein izanda ere, errespetuz onartua izanen da. Halere, **gure egoitza Alhondigan egotea nahi dugula** argitu gabe ez genuke gelditu nahi. Alde batetik, bere kokapena eta neurria ezin hobe heldu zaizkigulako: biltegi handia behar dugulako eta bulego eta aretoak asteroko erabilera dutelako. Bertzetik, herri erdigunean egoteak Lesaka zein elkarteari abantaila handia ekartzen digulako, antolatzen diren ekitaldi gehienak egoitzaren inguruan izaten baitira. Horrela, erdiguneari eta bertako komertzio eta ostalderi bizia ematen zaie aldioro.

Bertzerik gabe, egoitzaren inguruan ematen diren pausuen berri izanen duzue gure hedabide ohikoen bidez: web orrialde, facebook eta instagram, whatsapp eta aldizkariaren bidez.

Gora Beti Gazte! Gora Lesaka!



200.000€-KO AURREKONTUA 2022-RAKO

Joan den otsailaren 19an urteroko Elkartearen Batzar Nagusia egin genuen Harriondoako Txokobiko aretoan. Zuzendaritza Batzordeak proposaturiko eguneko puntu guziak onartu ziren bertan. Hala nola: pasa den urteko kontuak, 2021eko ekitaldiak eta 2022rako espero diren ekitaldien zerrenda. Horien artean, 2022rako aurrekontua ere onartu zen.

Bileran aipatu bezala, elkarteak 210.721€ kudeatuko ditu aurtengoan, pasa den urtean baina zerbait gehiago. Euro guzi horiek izanen dira handik eta hemendik tira eginez lortuko direnak eta, ondotik, herrian dozenaka ekintzetan inbertituko direnak.

Aurrekontuaren laurdenak, 50.000€ inguru, lizentziei egiten die erreferentzia. Hau da, elkarteak hainbat fitxa tramitatuko ditu, ondotik norberak berea ordainduko duena: futbol, sokatira, txirrindularitza eta mendiko aseguruak, hain zuzen. Diru aldetik ez du esfortzurik suposatuko Beti Gazterentzat, bai ordea hauen gestioak.

1.000€ gastatuko dira oraindik covid-aren ondorioz bete beharreko neurrietan. 47.100€ funtzionamendu gastuetan joanen dira, batez ere garbiketa eta egoitza eta Mastegiko mantenimendu gastuetan. Horrez gain, bulegoko materiala, fotokopiak eta kartelak ere multzo honetan sartzen dira. Erabilera anitzeko lokalean eta arropan ere joanen zaigu aurrekontu honen zati bat.



31.490€ bideratuko dira kulturako ekitaldi eta taldeetara. Argazkilaritza, Lerro Dantza Taldea, Muxikoak, Irakurketa Taldea eta Beti Gazte Kantari taldeek 4.890€ izanen dituzte urtean zehar eginen dituzten emanaldietan erabiltzeko. Gainontzekoa bertze ekitaldiak burutzeko bideratuko da. Hala nola: Ezagutu Dezagun Lesaka lehiaketa, margolaritza tailerra, sukaldaritza tailerra, erreken eguna, joskintza ikastaroa...

Aurrekontuaren zati handiena kirolera bideratzeko izanen da, 82.281€ hain zuzen ere. 43.000€ inguru mugituko ditu futbolak, batez ere, arbitraje, autobus eta askotariko materialeko gastuetan. Sokatirak 11.000€ inguruko mugimendua izanen du aurtan. Hauek materiala eta Lesakan eginen diren jardunaldietan erabiliko dira, bertzeak bertze.

6.400€ inguru bideratuko dira Beti Gazte Lasterkak antolatuko dituen Zubigaineko krosa eta Mendi Lasterketara. Txirrindularitza taldeak bertze 8.000€ inguruko gastua izanen du, gehienbat BTT ibilaldi eta Martxa Zikloturistarako erabiliko direnak. Mendira, aldiz, 10.000€ inguru bideratuko dira. Gehienbat Lesakako Mendi Itzulian erabiliko dira, baita urtean zehar antolatzen diren hainbat irteeretan ere.

Zeintzuk dira diru iturriak?

Urtero izaten dugun diru-sarrera garrantzitsua da bazkideok kuotetan jartzen duguna, aurten 33.500€. Baita ere, elkarteko gestio eta lanean orduak sartzen dituzten laguntzaileei esker, loterian eta Mastegiko sarrera, rifa eta abarretatik ateratakoa: aurten 32.500€ inguru.

Kulturari dagokionez, jasotzen den dirulaguntza bakarra Lesakako Udaletik datorkigu. Aurten 8.390€ esleitu zaizkigu. Gainontzeko 23.000€-ak, buruhaustea medio, tailer zein ekitaldietan parte-hartzaileen inskripzio eta bertze partidetako diru-sarreretik paratzen dira.

Kirolak jende eta diru mugimendu handia duenez, diru-sarrerak handik eta hemendik bilatu behar izaten dira. Futbol, sokatira, lasterka, txirrindularitza eta triatloi taldeek eta mendi irteerek generatzen duten 82.281€ horiek estaltzeko, Udalak 10.597€ esleitu dizkigu aurten.


Aurrekontua otsailean aurkeztu genuen eta Udaleko kiroleko diru-laguntzaren esleipena apirilean iritsi zaigu. Pasa den urtean portzentaia altuagoa izan zenez eta aurrekontua aurreko urteari begira egiten denez, gastu guztiak kubritu

gabe ditugu momentuz eta ekitaldi batzuk aurrera eramateko bertze irtenbide batzuk bilatu beharko ditugu.

Kantitate handiak mugitzen direnez, Udalari gastu guzia ez aurkezteko asmoz, bertze lekuetatik bilatzen dira diru-iturriak. Alde batetik, zati handi bat frogetan parte-hartzaileek jartzen duten inskripzioekin estaltzen da. Aurten 10.000€ inguru modu horretan estaltzea espero da.

Bertze aldetik, kirol federazioek eta kirol klubekin ditugun konbenioetatik ailegaten zaizkigu dirulaguntzak. Aurten 31.200€ inguru jasotzea espero dugu, bertze urteetan baino gehiago, 3. mailako gastuak estaltzeagatik. Oraindik gastua kubritzea urruti gelditzen zaigunez, babesleak bilatu behar izaten ditugu. Aurten babesletzan 6.500€ jaso dira.

Funtzionamendu-gastuak estaltzeko, Udalak dirulaguntza ttiki bat ematen digu ere: 1.000€. Gainontzeko 46.100€-ak bertze partidetatik bideratuko dira, hala nola.



BETI GAZTE 3. MAILAN: AMETSETIK ERREALITATE GORDINERA, IRAGANA... ETA ETORKIZUNA?

AITOR AROTZENA

Bukatu da Beti Gaztek 81 urteko historian hirugarren mailan egin duen lehen denboraldi historikoa. **Garai batean ametsetan ere irudikatzen ez genuena errealitate bihurtu zen joan den urteko ekainean.**

Errealitate gordina erranen luke norbaitek, izandako denboraldi gogorra kontuan hartuta. David Goliathen kontrako kontakizunarekin gogoratzen ginen hirugarren mailako biderei ekin aitzinetik, baina oraingoan Goliath indartsuagoa suertatu da. Maila mantentzea inoiz baino helburu zailagoa zela jakina zen hasieratik. Hogeitaldetik seik kategorია galduko zuten, ia hirutik batek. Eta ikusi behar da zein talde historiko dauden kategorian!: Alavés B, Barakaldo, Leioa, Portugalete, Cultural de Durango... Hain zuzen Durangon hasi zen ibilbidea, irailaren 5eko igande eguerdi bero hartan. Beti Gaztek galdu zuen, bai, baina itxura ona eman zuen. Zorritzarrez, denboraldi osoan aunitzetan gertatu dena. Izan dira garaipen handiak ere, Tolosan eta Larrabetzun 1-4 irabazi zuen, etxean partida bakan batzuk ere aitzinera atera ditu, majo sufrituta gehienetan. Baina, irabazi, berdindu ala galdu, beti Mastegira bildu den jendetzaren babesarekin. Zaleek ez diote inoiz bizkarrik eman taldeari, jokalariek zelai gainean zeukaten guztia ematen zutela ikusten baitzen. Baina gehienetan zerbait falta puntuak eskuratzeko.

Horrelako maila handi bat eskaparatea ere bada, eta erakusleaho horretan Urki Txoperena nabarmendu zen lehen itzulian, zortzi gol egin baitzituen. Eta Barakaldok eraman zuen golegilea lehen itzulia eta 2021a bukatu bezain abudo. Gainera, Jon Ubiriak ere Irlandarako bidea hartu zuen. Kolpe handia izan da taldearentzat bigarren itzulian eta kolpe horri ezin buelta eman ez ibili dela iduritzen zait.



Azken aldian lesioak ere pilatu dira, asteburutan eta zenbaitetan astegunez Arabara edo Bizkaira jokatzera joan behar izatearen nekea... jendez eskas, luze joan da denboraldi bukaera, baina jokalarien ahalegina eskertu eta txalotu bertzerik ez zaigu gelditzen.

Gainera, hirugarren mailan debuta egin dute oraindik gazte mailan ari diren lauzpabortz jokalarik eta horrek etorkizuna badela erakusten du.



Eta etorkizuna?

Izan ere, aipagarria izaten ari da jubenil mailako talderen denboraldia ere. Lehen itzulian beraien multzoan lehenbizikoak izan ziren eta orain euskal ligarako (gazte mailan hirugarren mailaren paretsukoa, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko talde handiekin) ohorezko mailako finalerako txartela lortu dute, igoera fasean partida bakar bat ere galdu gabe. Handia izanen litzateke gazteek ere horrelako igoera historiko bat lortzea!

Kadete eta infantil mailako taldeak Gipuzkoako lehen mailako igoera faseak jokatzen ari dira. Eta emakumeak? Gipuzkoako Ohorezko Mailako goitiko postuetan dantzan dabiltza denboraldi osoan, hirugarren postuan. Hauek ere meritu izugarriko denboraldia egiten ari dira. Gizasemeen bigarren taldea ere ari da erregionalean emaitza politak lortzen.

Beraz, hirugarren maila iragana da dagoeneko Beti Gazterentzat. Historia egin du. Polita (eta gogorra) izan da iraun duen bitartean. Etxeko futbolistekin, guztiz afizionatuak eta borondatez ari diren jokalariekin, aurre egin zaie profesionalak edo erdi-profesionalak diren taldeei. Baina, zergatik ez, beharbada bueltatuko da Beti Gazte noizbait kategoría honetara. Horretarako oinarriak jarri dituzte eta aterik ez da itxi behar. Halere, oinak lurrean finkatu eta 3.000 bizilagunera ailegatzen ez den herri batentzat Gipuzkoako ohorezko maila ere kategoría handia dela gogoratu behar da. Handi handia.

Aupa Beti Gazte!

FUTBOLA

Dagoeneko bukatuak ditugu ia talde guzien denboraldiak. Polita izan da aurten Mastegi inguruan sortu den giroa, jokalaria eta zaleak elkarturik bizitako momentuak. Gure neska-mutilek lan paregabea egin dute eta lortutako emaitzak horren seinale dira. Hainbat talde lehendabiziko hiru postuetan gelditu dira. Aipamen berezia merezi dute Emakumezkoen Ohorezko lehiaketan aritu direnak, kategoria berria estreinatuta, goitiko postuetan egon baitira denboraldi osoan. Nola ez, Jubenilei animo eta zorion hoberena opa diegu, ligan denboraldi bikaina egin eta lehendabiziko postuan gelditu ondotik, mailaz igotzeko aukera dute oraindik jokoan.



Hauexek da gaurko egunean talde bakoitzaren klasifikazioa:

POSTUA	TALDEA	J	ETXEAN			KANPOAN			GA	GK	PUNTUAK
			I	B	G	I	B	G			
19	3. RFEF	38	3	6	10	3	2	14	34	80	26
3	EMAKUMEZKOEN OHORZ. ERREG. LIGA	26	10	1	2	8	1	4	50	23	56
3	GIZONEZKOEN 1. ERREGIONALA KOPA	13	4	0	2	3	3	1	27	20	24
1	OHORZ. JUBENILAK IGOERA FASEA	8	4	0	0	3	1	0	19	2	22
2	MUTIL KADETEAK	14	6	0	1	5	0	2	91	21	33
2	MUTIL INFANTILAK	14	4	1	2	4	2	1	52	16	27
4	NESKAK KADETE - INFANTILAK	10	3	1	1	1	1	3	18	24	14
1	ALEBIN A	10	5	0	0	4	0	1	64	27	27
3	ALEBIN B	10	3	1	1	1	1	3	40	39	14
2	ALEBIN C	10	4	0	1	3	1	1	38	16	22
8	BENJAMIN	16	2	0	6	1	0	7	34	106	9

Zorionak talde guzietan eta bereziki entrenatzaile lanetan ibili zaretenei: lehendabiziko eta bigarren entrenatzaile, atezainen entrenatzaile eta baita laguntzaile teknikoei ere. Aupa zuek!

MENDI LASTERKETA

III. MENDI LASTERKETA ARRAKASTATSUA LESAKAN

Martxoaren 13an izan zen Lesakako III. Mendi Lasterketa, BG Lasterka taldearen bidez antolaturikoa. 159 parte-hartzailek egin zuten laster eta kasik bertze hainbertze herritarrek ekitaldia prestatzen lagundu zuten: ibilbidea markatu, bidegurutzeak zaindu, izen-emateak egin, sukaldean ari, hornidura puntuak prestatu, musikaz girotu, aurkezpen lanetan ari... Aurre-prestaketa eta egunean bertan lan handia duen ekitaldia da, bertzeak bertze, jende aunitz mugitzen duelako, baina laguntzen duten boluntario guziei esker egun paregabea izaten da urtero. 2022an ere halakoxea izan da, eguzkiz alaitutakoa, gainera.

Lasterketan denbora hoberena egin zuten bazkideak Aimar Otxoteko eta Ana Reina izan ziren. Saillapen osoko irabazleak, berriz, Soralezeko Ander De Luis eta Zarautzeko Nerea Amilibia. Taldeetako lehian, Manttale taldeak guttigatik gainditu zuen Beti Gazte taldea eta saria Berara eramatea lortu zuten... Heldu den urtean errebantxarako gonbitea egin beharko diegu 😊



Aimar eta Ana, lasterketako bazkide irabazleak

Hauxe da lasterketako podiuma eta denborak:

Gizonezkoen kategorian:

1. saria: Ander DE LUIS CABEZON - (1:12:42).
2. saria: Ibon ERDOZAIN IBARRA - (1:13:59).
3. saria: Joxe AMUNARRIZ GARCIA - (1:15:32).

Emakumezkoen kategorian:

1. saria: Nerea AMILIBIA ARRUTI - (1:35:27).
2. saria: Ane ELZAURDIA MENTABERRI - (1:36:02).
3. saria: Ana REINA ARJONA - (1:37:37).

Beteranoen kategorian - gizonak:

1. saria: Juan CARLOS KORTA - (1:21:11).
2. saria: Joseba LASARTE PELLEJERO - (1:21:41).
3. saria: Borja GARCIA ALZUGUREN - (1:22:53).

Beteranoen kategorian - emakumeak:

1. saria: Nerea AMILIBIA ARRUTI - (1:35:27).
2. saria: Ana REINA ARJONA - (1:37:37).
3. saria: Loly PARDAL PEREZ - (2:11:09).

Beti Gazteko bazkiderik onenak:

AIMAR OCHOTECO LARRARTE - (1:19:02).
ANA REINA ARJONA - (1:37:37).

Talderik onena:

MANTTALE.



SOKATIRA

Sokatirako neska-mutilek 2021-2022 denboraldia ere paregabea izan dute. Lan fina egin dute eta gogor aritu dira. Euskadi zein Nafarroako txapelketetan aurkeztu dira, bietan hainbat txapel eskuratuz. Nafarroan, hain zuzen ere, jokoan izandako hiru txapelak irabazi dituzte, gizon, emakume eta kategoria mistoan. Oraindik txapelketa honetako fase batzuk jokoan dituzte.

Euskadin, erakustaldi ederra eman ondotik, misto kategoriako lehendabiziko postuak aire egin zien, ez ordea bigarrenak. Gainontzeko mailetan irabazle agertu zen Beti Gazte, bai 4x4 eta 8x8koan ere. Aupa gaztik! Ezin hobe!



MENDIA

AZKEN HILABETEETAN IRTEERA UGARI INGURUKO MENDIETARA

Azken hilabete hauetan mendi irteera azkarki antolatu dira. Covid-a dela eta baten bat bertan behera utzi behar izan zen, abenduko Elutxara irteera adibidez. Baina, hala eta guztiz ere, ondorengo irteera hauek guztiak, mendizale mordoak elkartuta, arrakastaz burutu dira:

- Artikutza
- Aiako Harria
- Mendaur
- Irteera Xabierrera
- Aialde
- Larun



Heldu den hilabeteetan ere bertze hainbat antolatuko direla aurreikusten da, batez ere uda partean, ondoko herriko bestetako giroa aprobetxatuz. Animatu parte hartzera!

BERTZEAK

LEHEN SOROSPENAK ETA DESFRIBILADORE KURTSOA ALHONDIGAN



Martxoko azken aste-hondarrean, Lesakako Osasun Zentroarekin elkarlanean, lehen sorospen eta desfribiladore kurtsoa antolatu genuen. Bertan parte hartzera deituak izan ziren elkartearekin federatuak lehiatzen duten kirolari guztiak. Hiru egunez jaso zuten formakuntza sokatira zein futbol talde nagusietako kirolariek. Mila esker Osasunbideatik hurbildu zineten erizainei guretzat hain garrantzitsua izan daitekeen ezagutza elkarbanatzeagatik!

SAN ANTONERA IBILALDI ARAUTUA

Urtarrilaren 23an, San Antongo erromeri egunez, Ibilaldi Arautua antolatu zen Plaza Zaharretik Endarako urtegiraino. Bikote eta hirukoteetan antolatutako 32 taldetxok parte hartu zuten, guztira 73 pertsonek. Denek jaso zuten kamiseta bana oroigarri gisa eta hamaiketako ederraz gozatzeko aukera izan zuten helmugan.

Parte-hartzaile guzien denbora hartu ondotik eta hauen batzaz bertzekoa kalkulaturik, Loli Pardal eta Oihana Abuin suertatu ziren frogaren txapeldunak eta neurriko saria jaso zuten. Bigarren postuan Angel eta Danel Urtxegi gelditu ziren. Zorionak laukote!



JARDUNALDIA LESAKAN

Pasa den apirilaren 30ean sokatira jardunaldia izan genuen udal pilotalekuan. Talde mistoak lehiatu ziren 4x4 250kg modalitatean. Etxeko kirolariek bi talde aurkeztu zituzten eta Amaiur, Antsoain, Araxes eta Berriozar taldeak gailendu zituzten, lehen eta bigarren postuko txapelak irabaziz.

ARGAZKILARITZA

ARGAZKI LEHIAKETA 2021

Azkeneko urria eta azaroa bitartean izan zen 2021. edizioko argazki lehiaketa, urtero bezala, hagitz arrakastatsua. Nazionalitate ezberdineko 55 autorek parte hartu zuten, guztira 160 argazki aurkeztuz.

Hauexek izan ziren lehiaketaren epaimahaiak adostutako irabazleak:

Gai libreko irabazleak:

1. postua: José Ángel Amuchastegui Esnaola
Obra: Dura Ronda
2. postua: Fernando Moreno Zaldivar
Obra: Alhondiga

Kirola gaiko irabazlea:

- Carlos de Cos Azcona
Obra: Palaris

Beti Gazteko bazkide irabazlea:

- Fidel Ordoki Fagoaga
Obra: tximeleta



Argazki irabazlea: Dura Ronda - J.A. Amuchastegui

AJOARRIERO LEHIAKETA

Urtero egiten dugun moduan, 2021. urtean ere izan genuen Ajoarriero lehiaketa. Hamahiru bikote aurkeztu ziren eta gastronomo handien mailako kazolak prestatu zituzten denek. Epai-mahaia Zalain jatetxeko Iñaki Pikabea, Aterpe jatetxeko Joseba Zugarramurdi eta Ardora jatetxeko Roberto Loiolak osatu zuten, ondorengo irabazleak aukeraturik:

1. postua: Xabier Legasa eta Beñat Maia
"Gaztinborda"
2. postua: Idoia Telletxea eta Paula Garcia
"Bakailu Kuisine"
3. postua: Aitziber eta Mikel Maia
"Kordionistak"



BETI GAZTE KANTARI

Bertze urteetan egin izan dugun bezala, Feri egunean BG Kantari taldeak emanaldia egin zuen ilunabarrean. 25 lagun inguru elkartu ziren herritik barrena kantuan aritzeko soinularien laguntzaz.



IPUIN LEHIAKETA

Irain Eskola eta Tantirumairu Ikastolarekin elkarlanean urteroko ipuin lehiaketa antolatu zen pasa den urte bukaeran. Hilabete batez lanean ari ondotik, 101 ipuin aurkeztu zituzten Lesakako ikasleek, zein baino zein hobea. Urteko azken eskola egunean egin zen sari-banaketa, Josu Sanjurjo eta Iñigo Alzugarainen laguntzaz xelebretu zena. Bertan jakinarazi ziren lehiaketako irabazleak:

A MAILA

1. postua: OLAIA GAJATE OLAETXEA
"OLAIA ETA AINHOA ITSASOAN".
2. postua: XUNE IRIARTE AZPIROZ
"MENDIA BILTZEN".

B MAILA

1. postua: AMETS LASA PEREZ
"HARTZ POLARRAK".
2. postua: SOFÍA GHEORGHES TONENKA
"LAURA ETA BERE OTSOA".

C MAILA

1. postua: MAIALEN ORMAETXEA ERRO
"TXORITXO KONTUAK".
2. postua: AIORA GOYENECHE ZUBIETA
"BASOAN GALDUTA".

D MAILA

1. postua: ENERITZ IRATZOKI PORTU
"AGIÑAKO ALTXOR EZKUTUA".
2. postua: UXUE APEZTEGUIA BANEZA
"COVIDAREN TXERTOIA".



SUKALDARITZA TAILERRAK

Bi sukaldaritza tailer antolatu ziren pasa den urte bukaeran. Bat Basurde elkartearekin elkarlanean egin genuen, beraien egoitza gastronomikoan. Zalain jatetxeko sukaldaria den Iñaki Pikabeak zuzendu zuen tailerra. Menu goxoak prestatu ondotik, bi saioetara bertaratu ziren 22 ikasleek pare bat afari eder egin zituzten elkarrekin.



Bertze tailerra Errege Opilak egiten ikasteko izan zen. Irain Eskolako sukaldean egin genuen eta hamahiru parte-hartzaile izan zituen. Edorta Salvador, Basque Culinary Centerreko irakaslea eta Pan Baker-eko gozogilea, izan genuen irakasle moduan. Eguberri ederrak pasatzeko, ikasle bakoitzak hiru opil eraman ahal izan zituen etxera.



LESAKAKO BITXIKERIAK EZAGUTZEN

Pasa den urteko berrikuntza moduan aurkeztu genuen Lesakako Bitxikeriak lehiaketa. 60 parte-hartzaile ingururen galdetegiak jaso ziren, bakoitza hamar galderen erantzunekin. Guzi horien artean, Iker Alzugaray eta Milagros Echepare izan ziren hobekien erantzun zutenak. Zorionak bie! Aurten bigarren edizioa egingen da, beraz, adi egon eta galderak erantzutera animatu, sari ederrak ditugu eta!



ARBOLAREN EGUNA

Otsaileko bi asteburuetan zehar ospatu genuen Arbolaren Eguna. Lehenengo asteburuan, urtero bezala, Gardelko-pagoetako lursaila garbitu eta arbolak landatzeko prestatua utzi genuen. Hurrengo asteburuan izan zen landaketa, ondorengo arbola hauek landatu zirelarik: herrialdeko 60 haritz, 80 pago, 6 gereziondo, 6 intxaurreondo eta 20 lizar. Bukatu eta gero, ongi merezitako hamaiketakoa izan zen.

ARBOLAREN TXERTAKETA ETA KLONAZIOARI BURUZKO TAILERRA

Martxoaren 19an goizeko 10etan Otsango auzoko Toki Eder baserrian 18 lagun elkartu ginen arbolaren txertaketa eta klonazioari buruzko oinarrizko nozioak ikasteko. Ikastaro praktikoa eta entrenigarria izan zen, Pakito Portuk eskainitakoa. Ikasitakoaren ondoren luntx bat izan zuten bertaratutakoek Pakito eta Mari Joxeren eskutik. Ze gustural!



MEDITAZIO TAILER JENDETSUA

Martxoaren 22tik apirilaren 12ra bitarteko astearteetan meditazio tailerra egin zen elkartearen egoitzan. 20 lagun apuntatu ziren eta gustura ibili ziren Irinak zuzenduriko klaseetan. Egoitzako egoera kaxkarra dela eta hotza nabaria zen klaseetan, beraz, tenperatura goxatzen denerako bertze hilabete bateko tailerra egitea planteatuko da.



JOSKINTZA TAILER ARRAKASTATSUA

Martxoaren bukaeran hasi zen ikaragarritzko arrakastarekin joskintza tailerra. Lehendabizi apuntatu ziren 40 pertsonekin hiru talde osatu ziren, ahalik eta jende guttien kanpoan utziz. Oinarritzko ezagutzak eta hainbat teknika irakasten dizkie Mary Yepesek. Ikasleak, josteko makinak hartuta, poltsak eta gonazpikoak egiteari ekin diote buru-belarri. Martxoan hasitako tailerra bukatu ondotik, maiatzean ikasten jarraitzea erabaki dute hiru taldetxoek. Animo neskak! Ongi ari zarete eta!



JOSKETA SOLIDARIOA

Joskintzako ikasleek, Lesakako Zahar-etxeari lagunduz, hainbat manta moldatu dituzte bertako agureek erabili ditzaten. Laura Apeztegiak, elkarren arteko lotura eginez, proposamena egin ondotik, gainontzeko taldekideek gustura hartu zuten erronka eta tailerretik aparteko egun batean elkartu ziren eginkizunerako.



Orain bertze proiektu bat dute bistan. Harrera Sarearekin elkarlanean, Afrikako herrialde batzuetatik ekarritako tela zatiekin jertseak apainduko dituzte, ondotik Harrera Sarrerakoei bueltatu eta behar dutenerako erabiltzeko. Lan ederra!

HIRU EGUNEKO IRTEERA TERUELERA

Apirilaren 19tik 21era Terueleko hainbat herri ezagutzeko irteera kulturala antolatu zen elkartetik. 40 bat pertsona animatu ziren bidaian parte hartzera eta hagitz kontent bueltatu dira denak, ikaragarritzko esperientziak bizitu ondotik. Matarraña, Valderrobre, Calaceite, Beceite eta Cretas herriak bisitatzeko asmoz hurbildu ziren bertara. Eguraldiak sobera lagundu ez bazien ere, elkarrekin gustura ibiltzeko modua aurkitu zuten eta plangintza ia osorik betetzeko aukera izan zuten, hainbat bisita gidatu eginez.

KORRIKA 2022



HITZEKIN

Bertze urteetan bezala, aurten ere Beti Gaztek euskararen alde Korrikako kilometroa erosi du. Zuzendaritzako kide eta kirolarien artean eraman zuten lekukoa elkartearen izenean: Oier Iantzi, Iñigo Altzugarai, Argiñe Ordoki, Mayi Arriola eta Ander Abuin.

ANGEL CABALLERO, MASTEGI FUTBOL ZELAIAREN MANTENIMENDU ARDURADUNA

Beti Gazte: Nola aurkeztuko zinateke ezagutzen ez zaituen norbaiti?

Angel: Angel Caballero, bertzerik gabe.

BG: Zenbat denbora daramazu Beti Gazterekin lankidetzan?

A.: 30 urte inguru.

BG: Zein izan zen zure motibazioa klubean sartzeko?

A.: Futbola gustatzen zait, baita klubarekin kolaboratzea ere.

BG: Zein da betetzen duzun funtzioa? Zer egiten duzu?

A.: Mastegi futbol zelaia mantentzeaz arduratzen naiz. Mantentze-lanak, oro har, hala nola zelaiko kautxuari buelta ematea, sareak konpontzea, haize-makina pasatzea... Instalazioan hobekuntzak ere egiten ditut, hala nola babes-sareak jartzea eta terrazako teilapea luzatzea. Elkartek futbolaz gain antolatzen duen edozein jardueratan ere laguntzen dut.

BG: Zenbat denbora eskaintzen diezu Beti Gazteko lanei?

A.: Egun batzuetan lau ordu baino gehiago ematen ditut, eta bertze batzuetan guttiago. Astean, batez bertze, hogeitau ordu izanen ditut Beti Gazteri eskainiak.

BG: Zein da egiten dituzun lan guztien artean zailena?

A.: Zelaia makinarekin garbitzea da gehien zailtzen zaidana. Pazientzia handia behar da.

BG: Zer da elkartetik gehien gustatzen zaizuna, edo nabarmenduko zenukeena?

A.: Dugun batasuna eta giro ona. Baita borondatez egiten den lan handia ere.

BG: Nola ikusten duzu orain Beti Gazte?

A.: Une onean dago, kultura eta kirol jarduera aunitz egiten ditu. Zuzendaritza taldera jende berriaren sarrera nabaritu da, eta sare sozialei bultzada handia eman diete.



BG: Baduzu kontatzeko moduko anekdota xelebreren bat?

A.: Aunitz ditut. Errate baterako, hesiaren gainetik zelaira sartzen ari ziren mutiko ttikiena. Bat-batean aurkitu nintzen beraiekin eta haietako batek ezin zuen beste aldera bueltan jauzi egin. Hari errieta egin behar izan nion, baina maitekiro.

BG: Zeren falta sumatzen duzu Beti Gazten?

A.: Bazkide aunitzen lankidetzak. Batzuetan badirudi elkarteak gutxi batzuen artean eraman behar dugula.

BG: Zerbait gehitzeko...

A.: Gustura ari naiz egiten dudana egiten. Eta hori bai, **AUPA BETI GAZTE!**

ELKARTEKO EKIPAMENDUA EDUKITZEA INTERESATZEN ZAIZU?

NEW Iritsi da Beti Gazte-ren
"merchandising" berria!

Kamisetak, Motxilak, boligrafoak,
guardasolak, maillotak...

Hurbildu zaitetz ikustera...
ortzegunetan 18:00etatik
19:30era, elkarteak Mastegi
futbol-zelai aurrean duen lokalean.



HURRENGO EKITALDIAK

BETI GAZTE ALDIZKARIA - MAIATZA 22'

EKITALDIZ BETERIKO BETI GAZTE ASTEA

MAIATZA

27: 18:30 Ezagutu Dezagun Lesaka sari banaketa Harriondoatik.

28: 11:00 Errekaren Eguna
19:30 Beti Gazte Kantari herriko karriketan.

29: 11:00 Margolaritza tailerra.
16:00 Mahai Joko Txapelketa
19:00 Mendiak 1976 filmaren proiektzioa Harriondoan.

EKAINA

3: 16:30 Eskola futbola eta luntxa Mastegin.


19:00 Mahai Joko Txapelketaren finala Beheko Plazan.

4: 8:00 Mendi irteera
10:00 Futbol txapelketak Mastegin
12:00 Erraldoien konpartsa
14:00 Bazkari herrikoa
18:00 Muxikoak Plaza Zaharrean
20:00 Musika Plaza Zaharrean

5: 8:30 Margo Azkarreko Lehiaketa
9:00 Argazki Rallya
19:00 Lerro Dantza Taldea

6: Sukaldaritza Tailerra

LAGUNTZAILEAK



LESAKAKO ZERBITZUEN
ELKARTEA



sasoi
eraikuntzak

Zozaya
FONTANERÍA · CALEFACCIÓN · GAS

bidasoa

ArcelorMittal



ALZUGARAI S.L.U.



IMPULSO23



Aldizkariako argazkiak: Argazki Rally-a, Xabier Ariztegi, Fred Ramos, Erran.eus, Jose Luis Sunsundegui, AEK, Amaia Telletxea eta hainbat bazkidek bidalitakoak.



1940. urtetik
Lesakako Kirok eta Kultur Elkarte



WWW.BETIGAZTE.NET



@BETIGAZTELESAKA



@BETIGAZTELESAKA



696 80 98 86